

Lan mendekotasuna: besteen oniritzia, norbere zama

Konpromisoa eta lotura ez dira beti gauza bera izaten, ez lan kontuetan, behintzat. Lanari lotuta bizi denak balio gehiegi ematen dio bizitzako arlo horri



LANA BEHARTZAT hartzen duten guztiek ez dute ikuspegi berarekin egiten. Batzuek lana maite dutelako egiten dute, eta beste zenbaitek lana, lana eta lana besterik ikusten ez dutelako. Zenbait pertsona konpromiso harrigarritz atxikitzen zaizkio beren lanari, gozatu egiten dute, eta emaitza onak eman ere bai askotan. Beste zenbait, aldiz, lanari atxikita baino gehiago, lanari lotuta bizi dira, arreta gehiegi jartzen diote euren lanbideari, eta alde batera uzten dituzte bizitzako beste hainbat arlo, eta alde batera uzten dute osasuna ere. Lanari emanak egoten dira erabat, eta ez dira jabetzen zer gertatzen ari zaien. Non dago bi jokabide horiek bereizten dituen marra? Ez da erraza antzematen, hain da fina... Segur aski, emaitzetan ez da alde handirik izango batetik bestera, biek erantzungo diete bikain beren zereginei, baina batek motibazioa izango du gidari, ongi sentituko da, eta bestea, aldiz, lanaren mende geratzeko arriskuan egon liteke, gehiegi ematen duenari gehiegi eskatzeko joera izaten baita.

Zenbait gizartetan, lanak beste ezerk baino balio handiagoa du, jardutearen eta saiatzearen kultura lehenesten dute gauza guztien gainetik, eta testuinguru horretan sortzen dira lanarekiko lotura gehiegizkoak; mendekotasuna, azken batean. Zenbat eta ordu gehiago eman lanean, zenbat eta denbora gehiago eskaini lanari, hainbat hobeto, horixe da jokabide eredugarria, eta bizitzako beste arlo

batzuk baztertu behar izanda ere, ez du axola: familiako harremanak, gizartekoak, maitasun beharrak... horiek beti gerorako uzten dira.

Gehienoi gustatzen zaigu lanak ongi egitea, ongi sentiarazten gaitu horrek, eta goikoek aitortzen badigute gustura daudela gurekin edo ongi egindako lanaren ordainez soldata igotzen badigute, autoestimua gora egiten dugu. Hori gauza ona izanik ere, erne ibili behar dugu, lana ez dadin bihurtu gu ongi sentitzeko bide bakarra eta besteen oniritzia eta aitortza jasotzeko modu bakarra. Horretara mugatuko bagenu geure burua, bizitzak dituen beste esparru garrantzitsu batzuei bizkar ematen ariko ginatke, besteak beste pertsonen arteko harremanei eta aisialdiak eskaintzen dituen aukerei.

Pertsona perfekziozale eta obsesiboek izaten dute arrisku gehien lanaren mende geratzeko; zereginak goitik behera kontrolatu beharrak eta xehetasunik hutsalenari ere berebiziko arreta jarri beharrak ia lanaren esklabo bihurtzen ditu, euren indar eta denbora guztia lanari ematen baitiote.

Sarri ez dira ohartzen arazo bat dutela, ingurukoak lehenago ohartzen dira gehienetan; nekatuta ikusten dute pertsona hori, nerbio tentsioak jota, triste, bukatu gabeko lanen kezka beti, beste ezertarako denborarik gabe; eta norbera ohartzen denean osasuna galtzen ari dela lanaren erruz, estresa ere ager dakioko.

>

